# Nazioarteko Konferentziaren 4. Agiria

HERRITAR BATASUNA :: 22/03/2020

Burgesiaren erasoaren aurka, herri langileen aliantza iraultzailea!!

Abajo en castellano

==========================================================================================================================================================

Burgesiak, **COVID-19**ko pandemia estalgarri, mundu mailako langile-klasearen aurka eta, gure borroka-eremu espezifikoan, Espainiako Erresuma izeneko estatu kapitalista eta inperialistak zapaldutako nazio bakoitzeko Herri Langile guztien aurka eragin duen eraso ankerraren aurrean, **Nazioarteko Konferentziako**kideak diren AGORA GALIZA-UNIDADE POPULAR, HERRITAR BATASUNA eta NACIÓN ANDALUZA erakundeek honako hau adierazi nahi dugu:

1. COVID-19 birusaren agerpenak sortutako pandemiak ez du klase-borroka deuseztatzenedo desaktibatzen; aitzitik, areagotu, erradikalizatu eta sakondu egiten du, sistema kapitalistak duela hamarkada askotatik arrastatzen dituen egiturazko gainerako krisiekin bat eginez. Pandemiak planeta mailako produkzio-modu kapitalistaren krisi global eta orokor hau azkartu du. COVID-19 birusaren jatorria edozein dela ere, langile klasearen lehentasunezko zeregina pandemia hori lehenbailehen gelditzea eta ahalik eta izaki humano gehien salbatzea da. Horregatik, hemendik esker ona adierazi nahi diegu hori posible egiteko, euren bizitzak arriskuan jartzen eta lan eskerga egiten ari diren, langile horiei guztiei.

2. Gaixotasun larri honek ez digu ahaztu arazi behar planeta mailan beste pandemiak daudela, handiagoak eta hiltzaileagoak, jende pobrea, Herri Langileak, munduko Proletalgoa modu gupidagabean eta endemikoan kolpatzen dutenak, esplotazio eta zapalkuntza kapitalisten fruituak direnak. Hauetako lehena gose estruktural eta planifikatua da, burgesiaren eta bere satelite eta menpeko guztien axolagabekeriaren erdian burutzen den etengabeko genozidioa.

3. Burgesiak mundu mailako shock egoera hau aprobetxatu nahi du bere boterea sendotzeko eta bere etekinak hobetzeko, bere irabazi-tasa handitzeko eta, honi esker, Kapitalaren metaketa ere bai, bere errepresio eta kontrol sozialeko sistemak hobetzeko, bere neurrira diziplinatzeko eta langile klasea are gehiago ustiatzeko. Lanaren eta Kapitalaren arteko etengabeko gerra ez da inoiz gelditzen, klase-borrokaren motorra da eta egoera horren kontzientzia argiena duena burgesia bera da.

4. Espainiako Estatuak are gehiago sakontzen du bere krisia oligarkiaren menderatzeko egitura den aldetik. PSOE-Unidas podemos gobernu espainiarrak koronabirusari aurre egiteko hartutako neurri ekonomikoak ez dira nahikoak eta inprobisatuak dira. Ministroen Kontseiluak onartutako 200.000 milioi euroko neurri-sorta, benetan, langile-klasearentzat

adabaki batzuk jartzea baino ez da, herri-sektore zabalak pobretzea saihestuko ez dutenak: ez da debekatzen soldatak murriztea, ez ERTE direlakoak, ezlan-orduak handitzea, ez da galarazten eskubideen galera, atzera egiten dugu herri-borrokan eta langile-borrokan eskuratutako konkistetan... Beldurrak sortzen duen paralisia oraindik nagusi den gizarte baten kontraesanak moteltzea da haren helburua. PedroSanchezek denbora irabazi nahi du eta oligarkiaren izaera harraparia asebete nahi du, eta horregatik, adibidez, Estatuak bere gain hartzen du kaleratzeen kostua, ekitaldiko enpresa-irabazien kontura izatea beharrean.



5. Alarma-egoera deklaratzeak birzentralizazio prozesu bat ekarri du. Talde parlamentario gehienek eta Unidos Podemos PSOEko gobernu-kideek babestu dutena. Osasungintzan, garraioetan eta abarretan autonomien eskumenak Espainiako gobernuak hartu ditu bere gain, nola eta zein unetan itzuliko diren jakin gabe. Larrialdietako Unitate Militarra eta beste unitate militar batzuk hedatzen ari dira, BRILAT edo Legioa kasu, Estatu osoan zehar. Herritarren artean Espainiako Armadaren presentzia normalizatzeko , askatasunak murrizteko eta gure bizitzak militarizatzeko.

6. Monarkia Borbonikoa babesa galtzen jarraitzen du, Borbon Etxeko kide guztiak pixkanaka zipriztintzen ari diren eskandaluen aurrean. Zalantzarik gabe, Francoren garaiko eliza bezalako sistema hierarkiko-sozialaren balio absolutu bat ordezkatu arren, monarkia oligarkiaren klase nagusitasunari eusteko sakrifikatu beharreko peoia izanez gero, izaera burgeseko Espainiako III. Errepublika bati bidea emango litzaioke.

Honen guztiaren aurrean, NACIÓN ANDALUZA, HERRITAR BATASUNA eta AGORA GALIZA-UNIDADEPOPULAR erakunde sinatzaileek langileari eta gainontzeko herri-sektoreei eskatzen diegu aurre egiteko manipulazio-eta instrumentatze-saiakerak, klase-elkartasunez jokatzera, ez erortzeko oligarkiaren gezur-bideek bultzatutako psikosi kolektiboan.

Osasun pertsonalak zein kolektiboak eskatzen dituzten neurriak uneoro errespetatuz, elkartasun-eta autodefentsa-sareak ehundu behar ditugu auzoz auzo, lantegiz lantegi, elkarri laguntzeko, izua eta beldurra desaktibatzeko, Burgesiak inposatu nahi dituen neurri errepresiboei eta murrizketa antisozialei aurre egiteko.

Borroka hori luzea, gogorra eta mundu mailakoa izango da. Herri langileei dei egiten diegu hainbeste urtetako borrokan lortutako eskubide eta askatasunen defentsa kementsua egiteko presta daitezen, zeinak, zalantzarik gabe, oligarkia, COVID-19ren edota ondorengo "susperraldi ekonomikoa ziurtatzearen" aitzakiak direla-eta, murrizten saiatuko dela. Hau da, patronalaren irabazi-tasak berreskuratzen saiatuko da. Gure borrokak bakarrik -gure nazioen mailan antolatuta eta nazioartean koordinatuta-balantza alde popularrera makurtu dezake eta hondamendi sozial honen erantzuleek klase-borrokan irabazten jarrai ez dezaten lortu. Munduko Iraultza Sozialista da gure helburua, mundu aske baterako bidean, klase sozialik, estaturik, eta patriarkaturik gabekoa.

BURGESIAREN ERASOAREN AURKA, HERRI LANGILEEN ALIANTZA IRAULTZAILEA!

2020-ko Martxoaren 20a

AGORA GALIZA-UNIDADE POPULAR, HERRITAR BATASUNA, NACIÓN ANDALUZA

(Nazioarteko Konferentzian parte hartzen duten erakundeak)

==================================================================================================================================================

Comunicado nº 4 de Conferencia Internacional

¡CONTRA LA OFENSIVA DE LA BURGUESÍA, ALIANZA REVOLUCIONARIA

DE LOS PUEBLOS TRABAJADORES!

Las organizaciones AGORA GALIZA-UNIDADE POPULAR, HERRITAR BATASUNA y NACIÓN ANDALUZA -miembros de la Conferencia Internacional- ante la despiadada ofensiva que la burguesía, con la cobertura de la pandemia del COVID-19, ha desencadenado contra la clase obrera a nivel mundial, y, en nuestro ámbito específico de lucha, contra todos los Pueblos Trabajadores de cada una de las naciones oprimidas por el estado capitalista e imperialista llamado Reino de España, queremos manifestar lo siguiente:

1- La pandemia generada por la aparición del virus COVID-19 no anula ni desactiva la lucha de clases, al contrario, la agudiza, radicaliza y profundiza uniéndose al resto de crisis estructurales que el sistema capitalista arrastra desde hace muchas décadas. Esta crisis global y general del modo de producción capitalista a nivel planetario se ha visto acelerada por esta pandemia. Independientemente del origen del virus COVID-19, la tarea prioritaria para la clase obrera es parar esta pandemia cuanto antes y salvar el mayor número de seres humanos posible. Desde aquí expresamos nuestro reconocimiento a todos los trabajadores y trabajadoras que lo están haciendo posible con su entrega exponiendo sus propias vidas para ello.

2.- Esta grave enfermedad no nos hace olvidar que existen otras pandemias mayores y más asesinas a nivel planetario, que golpean a la gente pobre, a los Pueblos Trabajadores, al Proletariado mundial de forma inmisericorde y endémica, fruto de la explotación y opresión capitalistas. La primera es el hambre estructural y planificado, genocidio constante en medio de la indiferencia de la burguesía y todos sus satélites y subordinados.

3.- La burguesía quiere aprovechar esta coyuntura de shock a nivel mundial para afianzar su poder y mejorar sus beneficios, para aumentar su tasa de ganancia y ampliar la acumulación del Capital, para perfeccionar sus sistemas de represión y control social, para disciplinar a su medida y explotar aún más a la clase obrera. La guerra constante entre el Trabajo y el Capital no se detiene nunca, es el motor de la lucha de clases y quien posee una conciencia más clara de esta situación es la propia burguesía.

4.- El Estado español profundiza más aún su crisis como estructura de dominación de la oligarquía. Las medidas económicas adoptadas por el gobierno español PSOE-Unidas Podemos para combatir el coronavirus son insuficientes e improvisadas. El paquete de medidas de 200.000 millones de euros aprobado por el Consejo de Ministros, en realidad no

es más que una serie de parches para la clase trabajadora que no evitarán condenar el agotamiento de los vastos sectores populares: ni se prohíbe la reducción de salarios, ni los ERTEs, ni el aumento de las horas de trabajo, ni se frena la pérdida de derechos, retrocedemos en las conquistas adquiridas en la lucha popular y obrera... Su objetivo es amortiguar las contradicciones de una sociedad aún dominada por la parálisis que genera el miedo. Pedro Sánchez quiere ganar tiempo y satisfacer la naturaleza insaciablemente depredadora de la oligarquía y por eso, por ejemplo, el Estado asume el coste de los despidos en vez de quedar a cargo de los beneficios empresariales del ejercicio.

5.- La declaración del estado de alarma ha ido acompañada de una recentralización que apoyan la mayoría de los grupos parlamentarios y los socios de gobierno del PSOE, Unidas Podemos. Las competencias delegadas en Sanidad, Transportes, etc. Han sido asumidas por el gobierno español sin que se sepa cómo y en qué momento se devolverán. Se está desplegando a la Unidad Militar de Emergencias y otras unidades militares como la BRILAT o la Legión por todo el Estado, en un esfuerzo por normalizar la presencia del Ejército español entre la población, el recorte de libertades y la militarización de nuestras vidas.

6.- La monarquía borbónica continúa perdiendo apoyos en vista de los escándalos que van salpicando, progresivamente, a todos los miembros de la Casa de Borbón. No nos cabe duda de que -representando un valor absoluto del sistema jerárquico-social del como lo fue la iglesia con Franco- será un peón a sacrificar por la oligarquía si lo necesita para sobrevivir como clase dominante, bajo la forma de una III República española de carácter burgués.

Ante lo aquí descrito, las organizaciones firmantes NACIÓN ANDALUZA, HERRITAR BATASUNA y AGORA GALIZA-UNIDADE POPULAR pedimos a la clase trabajadora y sectores populares que no se dejen manipular e instrumentalizar, que ejerzan la solidaridad de clase, que no sean víctimas de la psicosis colectiva promovida por los medios de desinformación de la oligarquía. Respetando en todo momento las medidas que exigen tanto la salud personal como colectiva, tenemos que tejer redes de solidaridad y autodefensa barrio por barrio, fábrica por fábrica, para ayudarnos mutuamente, para desactivar el pánico y el miedo, para hacer frente a las medidas represivas y a los recortes antisociales que la Burguesía quiere imponer.

Esta lucha será larga y dura, y a nivel mundial. Llamamos a los Pueblos Trabajadores a prepararse para la defensa enérgica de los derechos y libertades conquistados en tantos años de lucha y que sin duda la oligarquía va a intentar reducir bajo la excusa del Covid-19 o de la posterior "recuperación económica", o sea la recuperación de las tasas de ganancia de la patronal. Solo nuestra lucha -organizada a nivel de nuestras respectivas naciones y coordinada de forma internacionalista- puede inclinar la balanza hacia el lado popular y evitar que los responsables de esta catástrofe social sigan ganándonos en la lucha de clases. Nuestro objetivo es la Revolución Socialista mundial, en el camino hacia un mundo libre, sin clases sociales, ni estados, ni patriarcado.

¡CONTRA LA OFENSIVA DE LA BURGUESÍA, ALIANZA REVOLUCIONARIA

DE LOS PUEBLOS TRABAJADORES!

20 de marzo de 2020.

AGORA GALIZA-UNIDADE POPULAR, HERRITAR BATASUNA, NACIÓN ANDALUZA

(Organizaciones miembro de la Conferencia Internacional)

---

*https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/nazioarteko-konferentziaren-4-agiria*